# ANTZERKI jaialdia amateur

## JAIALDIAREN OINARRIAK

### JAIALDIA

1. Jaialdia Alegria-Dulantziko Kultur Etxeko Txema Blasco Auditoriumean egingo da. Bertako langileak eta ekipamendu teknikoa jaialdiaren eskura egongo dira.

2. Edozein tokitako antzerki-talde ez profesionalek parte hartu ahal izango dute, eta beren antzezlanen edukia —familiei edo haurrei begirakoa barne—, estiloa eta hizkuntza ere edozein motatakoak izan ahalko dira. Talde bakoitzak, gehienez, 2 antzezlan aurkeztu ahal izango ditu.

3. Jaialdia **azaroaren 1etik 23ra** egingo da, honela:

   **Jaialdia: 1etik 17ra, asteburuetan** —ostirala, larunbata eta igandea—; haurrentzako lan bat barne.

   **Amaiera-ekitaldia eta sari-banaketa: 23an, larunbatean.**

   Antzezpen guztiak eta amaiera-ekitaldia 19:30ean izango dira; umeentzako emanaldia, berriz, 18:00etan.

4. Telefono-zenbaki hauetara deituta, jaialdiaren eta parte-hartzeko oinarrien gaineko informazioa jaso ahal izango da:

   Kultura Zerbitzua.-Telefono-zenbakia: 945 420 830, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

   Kultur Etxea.-Telefono-zenbakia: 945 420 704, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 21:00etara.

   Horrez gain, **www.teatroamateur.com** webgunean jaialdiari eta auditoriumari buruzko informazio guztia egongo da eskuragarri.

### IZENA EMATEKO

5. Taldeek **2019ko ekainaren 14ra** arte eman ahal izango dute izena.

6. Horretarako, ezinbestekoa izango da dokumentazio hau aurkeztea:

   Batetik, izena emateko fitxa, behar bezala beteta —www.alegria-dulantzi.eus eta www.teatroamateur.com webguneetan eskura daiteke—.

   Horri, hauxe erantsi beharko zaio:

   - Antzezlan osoaren kopia, edozein euskarri informatikotan (DVDa, pendrivea…), edo lanaren bideo osoa Interneten ikusi ahal izateko esteka (taldeek egokiro dabilela bermatu beharko dute; izan ere, sarbide-arazoak egonez gero, eskaera zuzenean baztertuko da).
   - IFKren kopia eta BEZaren Salbuespen Aitorpena, edo, bestela, ordezkariaren Zinpeko Deklarazioa, erakundeak irabazi-asmorik ez duela adierazteko.
   - **2/3 argazki edo irudi, euskarri informatikoan**, egitaraua edo bestelako zabalkunde-elementuak prestatu ahal izateko.

7. **Ahal dela**, izena posta elektronikoz emango da, helbide honetan: casacultura@alegria-dulantzi.eus

   Posta arrunt bidez egiteko aukera ere egongo da. Kasu horretan, izena emateko fitxa eta erantsi beharreko dokumentazioa helbide honetara bidali beharko dira:

   ANTZERKI AMATEUR JAIALDIA
   ALEGRIA-DULANTZIKO UDALA
   Herriko Enparantza 1
   01240 ALEGRIA-DULANTZI (ARABA)

   Agiri guztiak Alegria-Dulantziko Udalaren esku geratuko dira, eta ez dira itzuliko.

8. Jaialdian parte hartzeko hautaketatik at geratuko dira izena emateko epea bukatzean aurrez eskaturiko informazio eta dokumentazio guztia aurkeztu ez duten taldeak.

### LANEN HAUTAKETA

9. Hautaketa Batzorde batek aukeratuko ditu, aurkezten diren proposamen guztien artean, 9 antzezlan parte-hartzaileak —**tartean, haurrentzako lan bat**—. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

10. Hautaturiko lanek egokitzen zaien emanaldi-eguna baino lehen izan beharko dute antzeztu ahal izateko dagokion baimena (SGAErena edo egilearena, hala badagokio), ezinbestean. Antolakuntzak bere burua eskainiko die talde parte-hartzaileei izapide hori errazteko.

11. Hautaturiko antzezlanak aldaketarik egin gabe antzeztu beharko dira, hau da, aurrez bidalitako dokumentazioan jasotako testu eta aktore berberei eutsita; zerbait aldatuko balitz, Antolakuntzari garaiz jakinarazi beharko zaio, bestela baliteke Epaimahaiak horregatik deskalifikatzea.

12. Hautaketa egindakoan, posta elektronikoz jakinaraziko zaie bai aukeraturiko taldeei bai aukeratu gabeei. **Hautaketa eta jakinarazpena iraila bukatu baino lehen egingo dira.**

13. Hautaturiko taldeek, dosier batean, hainbat konturi buruzko informazioa jasoko dute: jaialdiaren antolaketa eta funtzionamendua, Txema Blasco Auditoriumarekin loturiko datu teknikoak eta hara iristeko modua, eta udalerriari buruzko informazio orokorra.

### DIRULAGUNTZEI ETA SARIEI BURUZ

14. Jaialdian parte hartzen duten 9 taldeek **900 €-ko dirulaguntza bana jasoko dute joan-etorrietarako eta emanaldirako, bai eta partaidetza-diploma bana ere.** Emanaldien hurrenkera antolakuntzak erabakiko du.

    SGAErekin loturiko kudeaketa eta ordainketa Alegria-Dulantziko Udalak hartuko ditu bere gain.

15. Sari hauek banatuko dira:

    **Antzezlan Onena**

    1. Saria.- Saria

    2. Saria.- Saria

    **Emakumezko Aktore Onena:** Saria

    **Taldeko Emakumezko Aktore Onena:** Saria

    **Gizonezko Aktore Onena:** Saria

    **Taldeko Gizonezko Aktore Onena:** Saria

    **Ikusleen Saria:** Saria

    Epaimahaiaren Sari Berezia: gorago jasotako sarietan ez dagoen edozein alderdi nabarmentzeko saria, epaimahaiaren arabera (eszenografia, jantziak, etab.).

    Sariak tokiko artista batek jaialdirako propio egindako obra originalak dira.

16. Partaidetza-diplomak eta sariak banatuko dira **Amaiera Ekitaldian, non udalordezkariak talde parte-hartzaile guztiekin bilduko diren**, azaroaren 23an, larunbatean. Talde parte-hartzaileek nahitaez joan beharko dute ekitaldi honetara, gutxienez haien ordezkari bat; bestela, dirulaguntza galduko dute.

17. Dirulaguntzak eta sariak ordainduko dira, gehienez, jaialdiaren amaiera-ekitaldia egin eta 30 eguneko epean.

### LEHIAKETA-FASEARI BURUZ

18. Jaialdiko epaimahaia, Kultura Zinegotzia edo hark eskuordeturiko pertsona mahaiburu, antzerkiaren eta kulturaren esparruarekin lotura duten lagunek osatuko dute.

19. Epaia eta oinarri hauetan jaso gabeko guztiaren gaineko interpretazioa apelaezinak izango dira, eta goian jasotako edozein sari banatu barik geratu ahal izango da.

20. Jaialdian izena emateak oinarri hauek onartzea dakar berarekin, bai eta oinarriotan jaso gabeko edozein konturi buruz antolakuntzak har dezakeen edozein erabaki ere.

---

13 Alegria-Dulantzi 2019

# ANTZERKI jaialdia / festival TEATRO amateur



teatroamateur.com

Alegria-Dulantziko Udala
Ayuntamiento Alegria-Dulantzi

Diario

Sello de Calidad Escenamateur

13 Alegría-Dulantzi

# festival TEATRO amateur

## BASES DE PARTICIPACIÓN

### SOBRE EL FESTIVAL

1. El festival se llevará a cabo en el Auditorio Txema Blasco de la Casa de Cultura de Alegría-Dulantzi poniendo a disposición su personal y equipamiento técnico.

2. Podrán participar grupos de teatro no profesional de cualquier procedencia, con montajes de cualquier contenido- incluido familiar/infantil-, estilo e idioma. Cada grupo podrá presentar un máximo de 2 montajes diferentes.

3. El festival se desarrollará del **1 al 23 de Noviembre** de la siguiente forma:

   **Festival:** Del **1 al 17 en fines de semana** viernes, sábado y domingo; e incluirá una obra infantil.

   **Gala de clausura y entrega de premios: Sábado, 23**

   Todas las representaciones junto con la Gala serán a las 19.30h a excepción de la representación infantil que será a las 18.00h.

4. Cualquier información sobre el festival y sus bases de participación se puede realizar en:

   Servicio de Cultura.-Tel 945 420 830 de lunes a viernes de 9.00 a 14.00h.

   Casa de Cultura.-tel 945 420 704 de lunes a viernes de 15.00 a 21.00h.

   Además en **www.teatroamateur.com** se dispondrá de toda la información sobre el festival y Auditorio

### SOBRE LA INSCRIPCIÓN

5. Las agrupaciones podrán inscribirse **hasta el 14 de junio de 2019**

6. Para realizar la inscripción es indispensable la aportación de la siguiente documentación:

   Ficha de Inscripción debidamente cumplimentada que se encuentra en la WEB www.alegria-dulantzi.eus y www.teatroamateur.com.

   Junto con la hoja de inscripción se deberá adjuntar

   - Copia de la representación íntegra de la obra en cualquier soporte informático (DVD-Pen Drive, etc.) o enlace al vídeo completo de la obra en Internet (Deben garantizarse que el enlace funciona correctamente, porque en caso de problemas de acceso, se descartará la solicitud automáticamente)
   - Copia del CIF y Declaración de exención de IVA o en su defecto Declaración Jurada del representante de que la entidad no tiene ánimo de lucro.
   - **2/3 Fotografías o imágenes en soporte informático** para la elaboración del programa y/o otros elementos de difusión.

7. Las inscripciones **se realizarán preferentemente** por correo electrónico

   casacultura@alegria-dulantzi.eus

   También podrán realizarse por correo ordinario remitiendo la hoja de inscripción y documentación a la siguiente dirección:

   FESTIVAL DE TEATRO AMATEUR
   AYUNTAMIENTO DE ALEGRIA-DULANTZI
   Herriko Enparantza, 1
   01240 ALEGRIA-DULANTZI (ALAVA)

   Toda la documentación quedará en propiedad del Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi no procediéndose a su devolución.

8. Los grupos que al finalizar el plazo de inscripción, no hubieran aportado toda la información y documentación solicitada, serán excluidos de la selección de participación en el festival.

### SOBRE LA SELECCIÓN DE OBRAS

9. De las propuestas presentadas, un Comité de selección determinará los 9 montajes participantes, **que incluirá una obra infantil**, además de tres de reserva. La decisión del Comité será inapelable.

10. Las obras seleccionadas deberán estar obligatoriamente en posesión de la autorización correspondiente (SGAE o del autor/es cuando corresponda) para representarse antes del día adjudicado. La organización se ofrece a facilitar este trámite a los grupos seleccionados.

11. Las obras seleccionadas deberán ser representadas sin cambios de texto ni actores o actrices con relación a la documentación enviada; en caso contrario deberán advertirlo a la Organización con la antelación suficiente ya que esta circunstancia podría ser motivo de descalificación por parte del Jurado.

12. Una vez realizada la selección se comunicará mediante correo electrónico a todos los grupos seleccionados y no seleccionados del resultado de la misma. **La selección y comunicación se realizará en un plazo no superior al mes de septiembre.**

13. Los grupos seleccionados recibirán un dossier con toda la información sobre la organización y funcionamiento del festival, datos técnicos del Auditorio Txema Blasco y acceso al mismo, así como información general del municipio.

### SOBRE SUBVENCIÓN Y PREMIOS

14. Las 9 agrupaciones participantes en el festival recibirán **una subvención para desplazamientos y representación de 900 € y diploma de participación.**

    El orden de actuación quedará a criterio de la organización.

    La gestión y abono de la SGAE correspondiente a las representaciones correrá a cargo del Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi.

15. Se establecen los siguientes premios

    **Mejor Montaje**
    1er. Premio.- Galardón
    2º Premio.- Galardón
    **Mejor Actriz principal:** Galardón
    **Mejor Actriz de reparto:** Galardón
    **Mejor Actor principal:** Galardón
    **Mejor Actor de Reparto:** Galardón
    **Premio del Público:** Galardón
    **Premio Especial del Jurado:** Galardón a cualquier aspecto destacado que no se encuentre recogido en los premios descritos y a juicio del jurado (escenografía, vestuario, etc.)

    Los galardones son obras originales realizadas específicamente para el festival por un artista local.

16. La Entrega de diplomas de participación y premios se realizará en la **Gala de clausura con recibimiento municipal** a todos los grupos participantes, que se celebrará el sábado, 23 de Noviembre. Los grupos participantes deberán asistir obligatoriamente con al menos un representante, la no asistencia a esta jornada implicará la perdida de la subvención.

17. El abono de la subvención y premios se realizará en un plazo máximo de 30 días tras finalizar el festival con la gala de clausura.

### SOBRE LA FASE DE CONCURSO

18. El jurado del festival presidido por El Concejal de Cultura o persona en quien delegue, estará formado por distintas personas relacionadas con el mundo del teatro y la cultura.

19. El fallo y la interpretación que se haga de lo no recogido en estas bases serán inapelables pudiendo dejar desierto cualquiera de los premios descritos.

20. La inscripción en el Festival supone la aceptación de las presentes bases así como la resolución por la organización de cualquier supuesto no recogido en estas.

13 Alegría-Dulantzi 2019

# ANTZERKI jaialdia / festival TEATRO amateur



teatroamateur.com

Alegria-Dulantziko Udala
Ayuntamiento Alegría-Dulantzi

Diario

Sello de Calidad Escenamateur